

# Harrera-gida

## Guía de bienvenida



ANOETAKO UDALA



# Aurkibidea

6	16	24	35
Anoetako datuak	Euskara	Kultura	Erakunde eta gizarte-eragileak
10	18	26	36
Herriguneko mapa	Gazteria	Hirigintza	Telefono interesgarriak
12	20	28	38
Gizarte-zerbitzuak	Ingurumena eta landa-garapena	Bestelako azpiegitura publikoak	Hitztegia
Bake-epaitegia eta erregistro zibila			
14	22	30	
Parekidetasuna	Liburutegia, KZgunea, ikasteko gela	Anoetako jaiak	

# Índice

7	17	25	35
Datos de Anoeta	Euskera	Cultura	Instituciones y agentes sociales
11	19	27	36
Mapa del centro del municipio	Juventud	Urbanismo	Teléfonos interesantes
13	21	29	38
Servicios sociales	Medioambiente y desarrollo rural	Otras instalaciones públicas	Diccionario
Juzgado de paz y registro civil	23	30	
15	Biblioteca, espacio KZ, sala de estudio	Fiestas y celebraciones de Anoeta	
Igualdad			

# Ongi etorri

## Kaixo, herritar hori!

Anoetako Udalaren izenean, ongi etorri beroena eskaini nahi dizugu. Anoeta udalerri txikia izan arren, anitza da, eta hainbat dira bertatik bertara eskura izango dituzun zerbitzuak eta azpiegiturak. Anoetako sinboloa kukua da, horregatik agertzen da kukua udaletxeko armarian.

Herrian dauzkagun baliabideak eta zerbitzuak zuri gerturatzeko asmoz, esku artean duzun gida txiki hau prestatu dugu. Anoetan murgiltzen hasteko tresna baliagarria izango zaizulakoan gaude.

Ongi etorri Anoetara!




# Bienvenida

¡Hola!



En nombre del Ayuntamiento de Anoeta, queremos darte una calurosa bienvenida. A pesar de que Anoeta es un municipio pequeño, es muy diverso y cuenta con gran variedad de servicios e instalaciones. El símbolo de Anoeta es el pájaro cuco, representado también en el escudo del ayuntamiento.

Con la finalidad de ayudarte a conocer los recursos y servicios del municipio, hemos elaborado esta guía que tienes ahora en las manos. Confiamos en que sea una herramienta útil, que te ayude a sumergirte en el municipio.

¡Bienvenidos/as a Anoeta!



Anoeta Euskal Herriko herri txiki bat da, 4,1 km<sup>2</sup> ditu eta 2.100 biztanle inguru ditu (2024). Biztanle gehienak herrigunean bizi badira ere, hainbat auzune ere badaude sakabanatuta. Gipuzkoako herrialdean eta Tolosaldeko bailaran dago kokatuta. Berezko hizkuntza euskara da.




Anoetarren jaiolekua

Euskara hizkuntza minorizatua da. Euskararen eremua ez da estatu nazional bat, eta administrazio bakoitzean egoera ezberdina da. Dagoeneko ohartuko zinen herri honetako biztanle gehienok dakigu eta erabiltzen dugun hizkuntza euskara dela, eta, gainera, euskaraz bizi nahi duen herria garela.

2021eko datuen arabera:

- Ezagutzari dagokionez: anoetarren %71 euskalduna da, %14a euskara ulertzeko gaitasuna badauka eta %15a erdalduna da.
- Lehen hizkuntzari dagokionez: %53k jaso du euskara lehen hizkuntza gisa, %33k gaztelania, %8k bi hizkuntzak eta %6k beste hizkuntza bat.
- Etxeko erabilerari dagokionez: %40k euskaraz hitz egiten du etxean, %37k gaztelaniaz, %19k bi hizkuntzak eta %4k beste hizkuntza bat.
- Kaleko erabilerari dagokionez: kalean entzuten diren elkarritzeten %73 euskaraz dira Anoetan. Euskaraz gehien hitz egiten dutenak haurrak eta gazteak dira; hauen elkarritzeten %80 baino gehiago euskaraz izaten dira.

Anoeta es un pequeño municipio de Euskal Herria, con una extensión de 4,1 km<sup>2</sup>. Cuenta con una población de unos 2.100 habitantes (según datos de 2024). Aunque la mayoría de los habitantes vive en el centro urbano, hay también barrios dispersos alrededor. Anoeta, situado en el valle de Tolosa, pertenece a la provincia de Gipuzkoa. La lengua autóctona es el euskera.



El euskera es una lengua minorizada. Su ámbito de aplicación no es un estado nacional, y la situación es diferente en cada una de las administraciones. Seguro que ya te habrás dado cuenta de que la mayoría de los vecinos y las vecinas del pueblo hablamos euskera y que Anoeta es un municipio que quiere vivir en euskera.

Según datos de 2021:

- En cuanto al conocimiento de euskera, el 71 % es euskaldún, el 14 % es capaz de entender euskera; y el 15 % habla euskera y castellano.
- En cuanto a la primera lengua, la primera lengua del 53 % es el euskera; la primera lengua del 33 % es el castellano; el 8 % habla euskera y castellano; y el 6 % habla además una tercera lengua.
- En cuanto a la lengua que se utiliza en el hogar: el 40 % se relaciona en euskera dentro del hogar; el 37 %, en castellano; el 19 %, en los dos idiomas; el 4 %, en otro idioma.
- En cuanto al uso informal en la calle, en Anoeta el 73 % de las conversaciones que se escuchan en la calle son en euskera. El uso del euskera es más frecuente entre personas de edad infantil y jóvenes, ya que en esos casos el 80 % de las conversaciones son en euskera.





# Herriguneko mapa / Mapa del centro del municipio

- 1 Udaletxea / Ayuntamiento
- 2 Anoetako Herri Ikastola
- 3 Abraham Olano kiroldegia / polideportivo
- 4 Mikelasagasti Auditorioa / Auditorio Mikelasagasti
- 5 Gaztelekua
- 6 Gela balioanitza / sala multidisciplinar
- 7 Liburutegia / Biblioteca
- 8 Adinekoen parkea / Parque para personas de 3<sup>a</sup> edad



- 9 Posta-bulegoa / Correos
- 10 Osasun-zentroa / Centro de salud
- 11 Hozpel lokala / Local Hozpel
- 12 Haur-eskola / Escuela infantil
- 13 Alkartasuna elkartea / Sociedad Alkartasuna
- 14 Tren geltokia / Tren (Renfe)
- 15 Autobus geltokia / Parada de autobús



# Gizarte-zerbitzuak

## Adineko pertsonak

- Laguntza teknikoak.
- Eguneko arretazzerbitzuak: estimulazio-tailerra.
- Ttipi-Ttapa.
- Egoitzak.
- Aldi baterako egonaldiak.
- Telealarma.
- Mendekotasun-RAI eta ezgaitasun-balorazioak.
- Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoa.
- Zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa.

## Familia, haurrak eta nerabeak

- Familiertzako informazioa, orientazio-eta balorazio-zerbitzua: Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Esku-hartze Psikosozialeko Programa.
- Seme-alabak izateagatik prestazio ekonomikoak: Eusko Jaurlaritzak eta Gizarte Segurantzak emandakoak.
- Familia ugarien agiria.

## Ezinduak

- Ezgaitasun-balorazioa.
- Laguntza teknikoak.
- Eguneko zentroak.
- Egoitzak.
- Zaintzaileentzako laguntza.
- Aparkatzeko txartela.
- Telelaguntza.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Mendekotasun, RAI eta ezgaitasun balorazioak.
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.

## Indarkeria matxista eta erasoak

- Harrera-zerbitzua: informazioa, orientazioa eta aholkularitza.
- Larrialdiko harrera.

## Menpekotasunak eta adikzioak

Menpekotasun edo adikzio-arazoak dituzten pertsonentzako edota familiertzako arreta-erbitzua.

## Gizarteratzea

- Larrialdi egoeran dauden herritar edo familiertzako etxebizitza.
- Gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko baliabideak.
- Egonaldi ertain eta luzeak egiteko bizilekuak.

## Prestazio ekonomikoak

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
- Kotizatu gabeko pentsioak.
- Gizarte Ongizateko Fondoak.
- Mendekotasun Legeak jasotzen dituen dirulaguntzak.

## Nazioarteko lankidetza

- Garapenerako heziketa eta sentsibilizazioa.
- Elkartasun Bekak.
- Nazioarteko larrialdiak.

Hitzordua eskatu behar da.

943 569 213

[gizarte@anoeta.eus](mailto:gizarte@anoeta.eus) / [gizartelaguntzailea@anoeta.eus](mailto:gizartelaguntzailea@anoeta.eus)

# Bake-epaitegia eta Erregistro Zibila

Hitzordua eskatu behar da.

943 246 538

[ezkerra.a@justizia.eus](mailto:ezkerra.a@justizia.eus)

Bake-epaitegia (beste epaitegietatik datozen komunikazio-ekintzak, falta-judizioak, adiskidetze-ekintzak).

Erregistro Zibila (ezkontzak, jaiotzak, heriotzak, abizenak euskal grafian jartzea, etab.)

# Servicios sociales

## Personas ancianas

- Ayudas técnicas
- Servicios de centro de día: taller de estimulación
- Ttipi-Ttapa
- Residencia
- Estancias temporales
- Telealarma
- Dependencia, RAI y valoraciones de incapacidad
- Prestación económica para cuidados en el entorno familiar
- Prestación económica vinculada a servicios

## Familia, menores y adolescentes

- Servicio de información, orientación y valoración de familias: Servicio de ayuda doméstica y programa de intervención psicosocial.
- Prestación económica por descendientes: Ayudas del Gobierno Vasco y de la Seguridad Social.
- Título de familia numerosa.

## Discapacidad

- Valoración de la discapacidad
- Ayudas técnicas
- Centros de día
- Residencias.
- Ayudas para las personas cuidadoras
- Tarjeta de aparcamiento
- TeleAyuda
- Servicio de ayuda doméstica
- Dependencia, RAI y valoraciones de discapacidad
- Prestación económica para ayudas personales

## Violencia machista y agresiones

- Servicio de acogida: información, orientación y asesoramiento.
- Atención a emergencias.

## Dependencia y adicciones

Servicio de atención a personas con dependencia o problemas de adicción y a familias.

## Socialización

- Vivienda para personas o familias del municipio que se encuentren en situación de emergencia
- Recursos para la inclusión social y laboral
- Viviendas para estancias medias o largas

## Prestaciones económicas

- Ayudas de Emergencia Social
- Pensiones no contributivas
- Fondo de Bienestar Social
- Subvenciones recogidas en la Ley de Dependencia

## Colaboración internacional

- Educación y sensibilización para el desarrollo
- Becas de solidaridad
- Emergencias internacionales

Es necesario solicitar cita.

943 569 213

gizarte@anoeta.eus / gizartelaguntzailea@anoeta.eus

# Juzgado de paz y registro civil

Es necesario solicitar cita.

943 246 538

ezkerra.a@justizia.eus

Juzgado de paz (acciones comunicativas procedentes de otros juzgados, faltas judiciales, procedimientos amistosos).

Registro civil (matrimonios, nacimientos, fallecimientos, reescritura de apellidos con la grafía en euskera, etc.).

# Parekidetasuna

📞 943 651 200 (3. luzapena) 📩 [kultura@anoeta.eus](mailto:kultura@anoeta.eus)

## Ahalduntzea eta aniztasuna lantzeko ekimenak

Ikastaroak, hitzaldiak, antzerkiak, erakusketak, dokumentalak, solasaldiak ...

## Indarkeria matxistari aurre egitea

- Sexu-heziketa programa, hezkidetzan oinarrituta, Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean.
- Indarkeria sexistari aurre egiteko udal-protokoloa
- ADI ETA SO! indarkeria matxistaren aurkako Anoetako mahaia.

## Jai berdinzaileak

Jai parekideagoak egiteko irizpideen lanketa.

## Andragora Tolosaldeko emakumeen etxea

- Sentsibilizaziorako eta emakumeen ahalduntze feministarako gune iraunkorra.
- Askotariko emakumeen arteko sarea.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko gunea.

Erabiltzaileak 16 urtetik gorako emakumeak dira eta  
bazkide izateko ez da baldintza berezirik eskatzen, ez da  
kuotarik ordaintzen.

Bertan ematen diren zerbitzuak:

jabekuntza eskolak, tailerrak,  
hitzaldiak, aholkularitza juridikoa  
eta aholkularitza psikologikoa.



📞 943 008 967  
✉️ [andragora@andragora.eus](mailto:andragora@andragora.eus)  
📍 Emakumeon Plaza, 1 (Tolosa)



## Igualdad

📞 943 651 200 (Extensión:3) 📩 kultura@anoeta.eus

### Iniciativas para trabajar el empoderamiento y la diversidad

Cursos, conferencias, teatro, exposiciones, documentales, charlas...

### Hacer frente a la violencia machista

- Programa de educación sexual, basado en la coeducación, en colaboración con la Herri Ikastola de Anoeta.
- Protocolo municipal para hacer frente a la violencia sexista.
- ADI ETA SO! Mesa de Anoeta en contra de la violencia machista.

### Fiestas igualitarias

Elaboración de criterios para organizar fiestas más igualitarias.

### Andragora Tolosaldeako emakumeen etxea (casa de la mujer)

- Garantizar espacios sostenibles que favorezcan la sensibilización y el empoderamiento feminista.
- La construcción de redes con mujeres diversas.
- La lucha contra la violencia machista.

Pueden participar mujeres mayores de 16 años. No se solicita ningún requisito especial para asociarse y no se exige cuota.

Entre los servicios que se ofrecen en el centro se encuentra la escuela de empoderamiento, talleres, conferencias, asesoramiento jurídico y asesoramiento psicológico.

Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez. / De lunes a viernes, mañana y tarde.

# Euskara

Astelehen, asteazken eta ostirala (8:30-15:00)

943 651 200 (4.luzapena)

euskara@anoeta.eus

Herrira bertakotzeko ez duzu zure hizkuntza alde batera utzi beharrik, gero eta anitzagoa den herri hau aberastu egiten baita zure hizkuntzarekin. Hala ere, jakin ezazu, euskara ikasteko aukerak badaudela herrian eta eskualdean, eta baita horretarako laguntzak ere. Euskara ikasteak, herria bere osotasunean ulertzea, herriaz gehiago gozatzea eta etxean sentitzea ekarriko ditzu.

- Euskararen lurraldera etorri zara, udalerri euskaldun batera.
- Arnasgune eta udalerri euskaldunek funtziogarrantzitsua dute euskararen normalkuntzan.
- Euskara ikasteak abantailak emango dizkizu eguneroko bizitzan.
- Gure herria euskalduna da, eta egunerokoan euskaraz bizi nahi dugu. Euskara bizi-bizirik dago, eta guretzako oso garrantzitsua da bizilagun berriak ere euskarara gerturatzea; zure jarrerak eragina du.
- Euskara ikasteak abantailak ditu zuretzat: herria ulertzeko eta bertakotzeko bidea irekiko ditzu, hurbiltasuna emango ditzu, lana lortzeko aukera gehiago izango dituzu, haurrak izanez gero eurei laguntzeko aukera emango ditzu...

## Herrian euskara ikasteko aukera

Euskara ikasteko taldeak ditugu, gutxieneko ikasle-kopuruak izena emanez gero. Interesatuek Udaleko euskara zerbitzura jo dezakete. Matrikulazioa irailean izaten da.

## Euskara ikasteko laguntzak

Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditu edozein euskaltegitan eta C1 arteko mailatan matrikulatzen direnentzat. Informazio gehiago Udaleko euskara zerbitzuan.

## Herriko bizilagunekin praktikatzeko aukera

Mintzalagun taldeak antolatzen ditugu euskara hobetu nahi dutenentzat, euskara gehiagotan erabili nahi dutenentzat eta euskaraz bizitzeko apustua egin nahi dutenentzat. Astean behin ordubetez eta talde txikitán (2 edo 3 pertsona). Izen-ematea irail-urrian izaten da.



# Euskera

Lunes, miércoles y viernes (8:30-15:00)

📞 943 651 200 (Extensión: 4)

✉️ euskara@anoeta.eus

Para afianzarte en el municipio, no es necesario que dejes de lado tu primera lengua. Anoeta es un municipio cada vez más diverso, que se enriquecerá al entrar en contacto con tus características lingüísticas. No obstante, te informamos de que hay opciones disponibles para aprender euskera, tanto en el municipio como en la comarca, además de ayudas. Saber euskera te ayudará a comprender el municipio en su totalidad, a disfrutar más de él y a sentirte como en casa.

- Acabas de llegar a la tierra del euskera y, en concreto, a un municipio euskaldún.
- Estás en un entorno euskaldun. Son lugares, junto con otros municipios euskaldunes, que cumplen una función vital para la normalización del euskera.
- Estudiar euskera te aportará ventajas en tu vida diaria.
- Anoeta es un pueblo euskaldún y sus habitantes queremos vivir en euskera. El euskera es una lengua viva y nos parece muy importante que sus nuevos habitantes den pasos para acercarse al euskera. Tu actitud influirá también en las decisiones de otras personas.
- Si decides estudiar euskera, verás que te aporta otras ventajas, tales como mayor facilidad para conocer el pueblo y asentarte en él, más oportunidades de encontrar trabajo y, si tienes hijos o hijas, podrás ofrecerles mayor ayuda, etc.

## Posibilidad de estudiar euskara en el municipio

En el municipio se organizan grupos para estudiar euskera, siempre que se cumpla un número mínimo de estudiantes. Las personas interesadas pueden acudir al servicio municipal de euskera. La matrícula se hace en septiembre.

## Ayudas para estudiar euskera

El ayuntamiento ofrece ayudas para estudiar euskera a las personas que se matriculan en un euskaltegi en cualquier nivel. Se puede solicitar más información en el Servicio de Euskera del ayuntamiento.

## Posibilidad de practicar euskara con las personas del municipio

Organizamos grupos de práctica para personas que desean mejorar su competencia oral en euskera, personas que quieren utilizarlo con mayor frecuencia o que quieren apostar por vivir y relacionarse en euskera. El grupo se reúne una hora a la semana en grupos pequeños (de dos o tres personas). El período de inscripción es entre septiembre y octubre.



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

# Gazteria



943 651 200 (Luzapena: 4)



gazteria@anoeta.eus

## Haur-txokoa eta gaztelekua

Haur-txokoa 8-11 urte bitarteko haurrei zuzendutako espazioa da, eta gaztelekua 12-15 urte bitarteko gazte eta nerabeei bideratutakoa. Bertan hainbat ekintza egiten dira egunero, astelehenetik ostiralera (17:00-20:00). Urritik maiatzra bukaerara egoten da irekita. Izen-ematea irailean zabaltzen da eta espazio horretarako sarrera doakoa da.

## Treba gurasoak

Urtero, gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen hitzaldi edo tайлerrak herrikoekartzen saiatzen da Udala.

## Udalekuak

Udalekuak ekaineko azken astean hasten dira. HH1-LH6ko herriko gaztetxoenei bideratuta daude, ekintza honek lau aste irauten du eta bi txandatan banatzen dugu; txanda bakoitzak bi asteko iraupena izaten du. Hilabete osoko edo txanda bakarreko izen-ematea egin daiteke; astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Ekintza eta ospakizun ugari egiten dira, esate baterako: San Fermin eguna, uraren eguna, mozorroen eguna, eguneko irteerak...

## Ikastaroak

Udalak urtero hiru ikastaro desberdin proposatzen ditu LHko ikasleentzat. Ikastaroak herritarren interes eta gogoaren arabera aldatuz joaten dira. Azken urteetan eskainitako ikastaroen adibideak: irratsaioa, zirku ikastaroa, eskulanak, yoga txikientzat, antzerkia...

## Ekintza bereziak

Aste Santuan eta Eguberriean ekintza bereziak antolatzen dira, bai Gaztelekuaren eta baita herri mailan ere: antzerkiak, puzgarriak, irteerak...



# Juventud

## Haur txokoa y gaztelekuak

*Haur Txokoa* es un espacio dirigido a niños y niñas de entre 8 y 11 años. *Gazteleku* es un espacio dirigido a adolescentes de entre 12 y 15 años. Se realizan actividades diariamente, de lunes a viernes (17:00-20:00). El período de apertura va de octubre a mayo. La inscripción se abre en septiembre y el acceso es gratuito.

## Actividades para madres y padres

Cada año el ayuntamiento intenta traer al municipio conferencias o talleres que puedan ser interesantes para madres y padres.

943 651 200 (Extensión: 4)

gazteria@anoeta.eus

## Udalekuak

Las colonias de verano se organizan la última semana de junio. Están pensadas para edades que van desde el primer curso de Educación Infantil hasta el sexto curso de Educación Primaria. Tienen una duración de cuatro semanas, repartidas en dos turnos, de dos semanas cada uno. Es posible apuntarse a las colonias para todo el mes o solo para uno de los turnos. El horario es de lunes a viernes, de 10:00 h a 13:00 h. En las colonias, se organizan muchas actividades y celebraciones, entre ellas, el día de San Fermín, el Día del Agua, Día de los Disfraces, excursiones de día, etc.

## Cursos

El Ayuntamiento propone anualmente tres cursos de euskera para alumnos y alumnas de Educación Primaria. Los cursos varían en función de los intereses y de las motivaciones de la ciudadanía. Estos son algunos ejemplos de los cursos realizados en los últimos tres años: radio, trabajos manuales, yoga infantil, teatro...

## Actividades especiales

En Semana Santa y en Navidades se organizan actividades especiales en el Gazteleku y, en general, en todo el municipio: teatro, hinchables, excursiones...





## Ingurumena eta landa-garapena

Anoetan hondakinen kudeaketari garrantzi handia ematen diogu. Hondakinak gaika sailkatzen ditugu eta, horretarako, sistema mistoa daukagu ezarrita (plastikoa, papera eta beira edukiontzieta, organikoa auzo-konpostan edo atez ate, eta errefusa atez ate). Hondakinak ondo sailkatuz gero, hobariak aplikatzen dira.

Bestalde, elikadura osasuntsuagoa bultzatzeko asmoz, herriko lurretan herri baratzak dauzkagu herritar ororen eskura.





## Medioambiente y desarrollo rural

En Anoeta le damos mucha importancia a la gestión de los residuos. Seleccionamos los residuos de acuerdo con su categoría. Para ello, hemos establecido un sistema mixto: contenedores para plástico, papel y vidrio; compostaje de los residuos orgánicos por barrios o recogida a domicilio y recogida a domicilio del resto de residuos. La gestión adecuada de los residuos se incentiva mediante bonificaciones.

Por otro lado, a fin de fomentar una alimentación sana, en los terrenos del municipio hay disponibles huertos urbanos.

# Liburutegia, KZgunea, ikasteko gela

## Maileguak

Norberaren txartelarekin 3 liburu, 3 DVD eta 3 aldizkari har daitezke. Mailegua 21 egunekoa izango da liburuen kasuan, eta aldizkari eta filmen kasuan 7 egunekoa. Material bakoitzaren mailegua beste behin berritzatzeko aukera egongo da, baldin eta beste inork erreserbatu ez badu.

Mailegu bat berritzeko, ez da liburutegira joan behar. Nahikoa da telefonoz deitzea edo liburutegi@anoeta.eus helbide elektronikora mezu bat bidaltzea. Internet bidez ere egin daiteke.



## Itzulketak

Liburuak, aldizkariak eta DVDAk liburutegian itzul daitezke liburutegiko ordutegian. Ordutegi horretatik kanko itzuli nahiz gero, liburutegiaren kanpoko aldean dagoen buzoian utz daitezke.

## NIK patrika digitala

Liburutegiko txartela gainean eraman beharrean, Eusko Jaurlaritzaren APP horretan eraman dezakezu. Liburutegiko txartelaz gain, Osakidetzako txartela ere aplikazio horretan gorde daiteke.



# Biblioteca, espacio KZ, sala de estudio

## Préstamos

Con cada tarjeta individual, se puede acceder al préstamo de tres libros, tres DVD y tres revistas. Los libros se prestan para 21 días y las revistas y las películas para 7 días. El préstamo del material se puede renovar siempre y cuando no lo hayan reservado otras personas interesadas.

Para renovar el préstamo, no es necesario ir a la biblioteca. Se puede renovar llamando por teléfono o enviando un mensaje al correo electrónico.

## Devoluciones

Los libros, las revistas y los DVD se pueden devolver en el horario de apertura de la biblioteca. Fuera de ese horario, se deben depositar en el buzón situado en el exterior de la biblioteca.

## NIK, cartera digital

En lugar de llevar contigo la tarjeta de la biblioteca, puedes llevarla en esta aplicación del Gobierno Vasco. Además de la tarjeta de la biblioteca, también podrás guardar en ella la tarjeta de Osakidetza.



Departamentu honek bideratzen dituen gaiak:

- Herri bizitza sustatzeko kultur jarduerak antolatu, betiere herritarren partaidetza suspertzea ardatza izanik: herriko festak, neguko eta udako solstizioak ospatzeko ekimenak, etab.
- Hileko agenda osatu eta kultur programazioa elikatu urtean zehar: antzerkiak, film eta dokumentalen proiekzioa, musika emanaldiak, bertso-saioak, etab.
- Kultur ondarea zaindu eta zabaldu: bisita gidatuak irailean Basagain Burdin Aroko herrixkan.
- Dirulaguntzak eman kultur eta kirol elkarteei, urtean zehar kultur eta kirol jarduerak sustatzeko herrian.

## Kultur aniztasuna

Anoetan jatorri anitzeko herritarra daude, eta etorri berrikin harrera-saioak antolatzen ditugu urtean bitan gutxienez, elkar ezagutu eta gertuko harremana sortze aldera. Saio horietan, herriari buruzko bideo labur bat proiektatu ondoren, hainbat gairi buruzko informazioa ematen diegu: kultur ekimenak, herriko festak, euskara ikastaroak, hondakinen kudeaketa, ikasketak homologatzeko aukera, migrazio-prozesuen inguruko aholkularitza, etab.

Saio horietan parte hartzen dutenek beraien zaitasunak, zalantzak, kexak eta proposamenak azaltzeko aukera dute, eta beti azpimarratzen dugu Udala laguntzeko dagoela eta atea zabalik dauzkatela, edoztarako lagunza behar izanez gero.



Tolosaldeko eskualdean dauden programa, ekintza eta baliabideen inguruko informazioa jasotzeko Tolosaldea Garatzeneko migrazio eta aniztasun sailarekin harremanetan jartzeko:

📞 943 654 501 (6. luzapena) / 646 05 70 80

✉️ [migrazioa@tolosaldea.eus](mailto:migrazioa@tolosaldea.eus)

📍 Lehiberri Zentroa. Apattaerreka Industrigunea 1, 20400 Tolosa



## Cultura

📞 943 651 200 (3.extensión) 📩 kultura@anoeta.eus

Temas gestionados por este departamento:

- Organización de actividades culturales para promover la vida en el municipio, situando la activación de la participación ciudadana en el eje central: fiestas populares, solsticios de invierno y de verano, celebraciones, etc.
- Elaboración de la agenda mensual y alimentación de la programación cultural: teatro, proyección de películas y documentales, conciertos de música, sesiones de bertsolarismo, etc.
- Cuidado y difusión del patrimonio cultural: visitas guiadas en septiembre al poblado de la Edad de Hierro en Basagain.
- Concesión de subvenciones a asociaciones culturales y deportivas para realizar actividades deportivas y culturales en el municipio.

### Diversidad cultural

La ciudadanía de Anoeta es muy diversa. Al menos dos veces al año, organizamos sesiones de acogida de las personas recién llegadas para facilitar el conocimiento mutuo y las relaciones. En dichas sesiones, además de proyectar un pequeño vídeo sobre el municipio, ofrecemos información sobre diversos temas: iniciativas culturales, fiestas populares, cursos de euskera, gestión de residuos, posibilidad de homologar los estudios, asesoramiento sobre procesos de migración, etc.

Las personas que participan en esas sesiones tienen ocasión de compartir sus dificultades, dudas, quejas y propuestas. Siempre se subraya que el ayuntamiento está dispuesto a ofrecer apoyo y que tienen las puertas abiertas en caso de que necesiten ayuda.

Si deseas obtener información sobre programas, actividades o recursos de la comarca de Tolosaldea, ponte en contacto con el Departamento de Migración y Diversidad de Tolosaldea Garatzen:

📞 943 654 501 (Extensión: 6) / 646 05 70 80

✉️ migrazioa@tolosaldea.eus

📍 Lehiberri Zentroa. Apattaerreka Industrigunea 1, 20400 Tolosa

# Hirigintza

Obra bat egin behar baduzu etxean edo jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri, baimena eskatu behar duzu udaletxeen.

📞 943 651 200 (2. luzapena) 📩 [hirigintza@anoeta.eus](mailto:hirigintza@anoeta.eus)



# Kirola

Kiroldegian kirol ikastaroen eskaintza zabala programatzen da urritik ekainera. Gimnasioa erabiltzeko urteko abonua egin daiteke edo hilabetekoa.

Eta kantxa ere alokatu daiteke, dagokion tarifa ordainduta. Deskontuak egiten dira abonuetan eta baita ikastaroetan ere.

Tarifak eta bestelako informazioa Udalaren web orrian ikus daiteke:  
[www.anoeta.eus](http://www.anoeta.eus)

📞 688 663 950 📩 [aolanokirolddegia@gmail.com](mailto:aolanokirolddegia@gmail.com)





## Urbanismo

Si necesitas hacer alguna obra en tu domicilio o poner en marcha una actividad económica, debes solicitar permiso al ayuntamiento.

📞 943 651 200 (Extensión: 2) 📩 [hirigintza@anoeta.eus](mailto:hirigintza@anoeta.eus)



## Deporte

En el polideportivo se programa una amplia oferta de cursos deportivos desde octubre hasta junio. Se puede adquirir un bono anual o mensual para utilizar el gimnasio.

Las tarifas y el resto de la información pueden consultarse en la página web del ayuntamiento: [www.anoeta.eus](http://www.anoeta.eus)

📞 688 663 950 📩 [aolanokirolddegia@gmail.com](mailto:aolanokirolddegia@gmail.com)



# Bestelako azpiegitura publikoak / Otras instalaciones públicas

## Osasuna / Salud

Osasun zentroa / Centro de salud.



## Posta-bulegoa / Correos



## Garraio publikoak / Transporte público

Autobusa / Autobús  
[www.tolosaldeabus.net](http://www.tolosaldeabus.net)  
943650622

## Trena / Tren

[www.renfe.com](http://www.renfe.com)  
943841251




## Kirola

Kirolegia, frontoia, saskibaloi kantxa (San Juan atzealdea), eta adinekoen parkea.



## Kultura

Mikelasagasti Auditorioa, Hozpel lokala, eta gela balioanitza.



## Osasun parkea / Parque de la salud

Adinekoen parkea / Parque para la tercera edad.



## Deporte

Polideportivo, frontón, cancha de baloncesto y parque de la tercera edad.



## Cultura

Auditorio Mikelasagasti, local Hozpel y sala polivalente.



## Adinekoak / Tercera edad

Alkartasuna Elkartearen lokal / Asociación Alkartasuna y local.



## Hezkuntza

Haur-eskola eta Anoetako Herri Ikastola.



## Educación

Escuela Infantil y Anoetako Herri Ikastola.



## Kultur ondarea

Basagain Burdin Aroko herrixka (K.a. 2000. urtekoa), Osintzulo, leratxulo errota (XVI. mendekoa), karobiak, mehategiak, Modestoenea (Moxtone), Done Jakue bidea, eta harrizko gurutzea (XVI. mendekoa).

## Patrimonio cultural

Poblado de la Edad de Oro de Basagain (del año 2000AC), Osintzulo, molino leratxulo (del siglo XVI), hornos de cal, minas, Modesto Enea (Moxtone), camino de santiago, y Cruz de Piedra (siglo XVI).



# Anoetako jaiak eta ospakizunak

## OTSAILA

### Santa Ageda Bezpera

Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera ospatzen dugu, Euskal Herriko herri askotan bezala. Negua amaitzear dela, lurra esnatzea deia egiten da makil hotsez, kantuekin batera. Hortaz, Anoetako Herri Ikastolako haurrak eta herritarra ere kantatzen irteten dira herrian zehar.

### Kaldereroak

Inauteriak iragartzera etortzen dira urtero kaldereroak. Anoetan Inauterien aurreko ostiral arratsaldean ospatzen ditugu, eta kalejira bat egiten da, kalderero jantzita, Loatzo Musika Eskolako musikarien laguntzaz.

### Inauteriak

Tolosako Inauteriak gogoz bizi izaten ditu herriko jendeak, eta anoetarrak Tolosara joan ohi dira festa handi horretaz gozatzen. Horregatik, herrian ez dugu ezer berezirik antolatzen. Hori bai, Ostegun Gizen bezperan Anoetako Herri Ikastolak Inauterietako jaialdia antolatzen du urtero kirolegian. Festa polita eta jendetxua izaten da.

# Fiestas y celebraciones de Anoeta

## FEBRERO

### Vispera de Santa Águeda

Se celebra el 4 de febrero, la víspera de Santa Águeda, al igual que en otros muchos municipios euskaldunes. Cuando el invierno está a punto de llegar, se golpea el bastón para llamar a la tierra y pedirle que despierte. Todo el alumnado de la Herri Ikastola y la ciudadanía de Anoeta sale a cantar por el pueblo.

### Caldereros

Todos los años los caldereros llegan para anunciar los Carnavales. En Anoeta celebramos los Carnavales el viernes (a la tarde) anterior a los carnaavales. Se organiza un pasacalles, con el acompañamiento de la Escuela de música Loatzo, y las personas participantes van vestidas de caldereros.

### Carnavales

Los vecinos y las vecinas de Anoeta viven intensamente los Carnavales de Tolosa y se desplazan allí para disfrutar de la gran fiesta. Por eso, en Anoeta no organizamos nada en particular. Eso sí, la víspera del Jueves Gordo la Herri Ikastola de Anoeta organiza todos los años en el polideportivo el festival de Carnavales. Es una fiesta bonita y muy concurrida.



## MARTXOA

**Emakumeen Nazioarteko Eguna**  
Martxoaren 8an  
Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, eta elkarretaratze bat egin ohi dugu herriko plazan, herriko talde feministak eta Udalak deituta. Gainera, emakumeak protagonista diren antzerki, musika emanaldi edota bestelako ekimenak antolatzen ditugu egun horren bueltan.

## Korrika

Bi urtez behin ospatzen dugu Korrika, euskararen aldeko ekimen herrikoia. Horren harira, Udalak kilometro bat eskuratzentzu du, eta hainbat kultur ekimen antolatzen dugu giroa berotzeko ("Korrika Kulturala" delakoa).



## APIRILA

**Dantzari Txiki Eguna**  
Anitz Dantza Taldeak antolatzen du eta 200 haur baino gehiagok hartzen du parte, Anoetakoak zein beste herritakoak. Kalejira egiten dute herrian zehar eta dantza emanaldia plazan, festa giro polita sortuz.  
*Data aldakorra da.*

## Aberri Eguna

Aste Santuko igandean Aberri Eguna ospatzen da, euskal nazioaren eguna. Herrian ez da ezer egiten bereziki, baina kontuan hartzeko egun garrantzitsua da.

## San Isidro Eguna

Maiatzaren 15ean baserritarren eguna

## MARZO

**Día Internacional de la mujer**  
El 8 de marzo celebramos el Día Internacional de la Mujer. Solemos hacer una concentración en la plaza del pueblo, convocada por los grupos feministas de Anoeta y por el ayuntamiento. Además, alrededor de ese día organizamos también obras de teatro, conciertos de música y otras iniciativas que tienen a las mujeres como protagonistas

## Korrika

Cada dos años se organiza la Korrika, una iniciativa popular a favor del euskera. El ayuntamiento adquiere un kilómetro y organizamos diversas iniciativas culturales para animar el ambiente (se denomina «Korrika cultural»).



## ABRIL

**Dantzari Txiki Eguna**  
Este día dedicado a la danza infantil lo organiza Anitz, grupo de danzas de Anoeta, y reúne a más de 200 niños y niñas, tanto de Anoeta como de otros municipios. Realizan un pasacalles por el pueblo y ofrecen un espectáculo de danza en la plaza, lo que genera un ambiente festivo muy agradable.  
*La fecha puede variar.*

## Aberri Eguna

El Domingo de Pascua se celebra el Aberri Eguna («Día de la Patria Vasca»). En el pueblo no se organiza nada en particular, pero es un día que se tiene en cuenta porque es importante.

## MAIATZA

### San Isidro Eguna

Maiatzaren 15ean baserritarren eguna ospatzen da. Horren harira, bultzada bat eman nahi diogu baserri munduari eta balioan jarri gure kulturan duen garrantzia. Izan ere, auzolan ekimenak ere antolatzen ditugu, herritarren laguntzaz herriko hainbat puntutan garbiketa-lanak egiteko.

### Euskaraldia

Bi urtez behin euskararen erabilera bultzatzeko asmoz egiten den ariketa sozial bat da. Euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da. Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nadi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

## MAYO

### Día de San Isidro

El 15 de mayo se celebra el día de los y las baserritarras. De esa forma, se impulsa el entorno rural y se pone en valor su importancia en nuestra cultura. De hecho, organizamos iniciativas de trabajo vecinal, y con la ayuda de la ciudadanía se llevan a cabo tareas de limpieza en diversos puntos del municipio.

### Euskaraldia

Se trata de un ejercicio social que se realiza cada dos años para promover el uso del euskera. Es un movimiento social para cambiar los hábitos lingüísticos de las personas hablantes que entienden euskera. A través del movimiento, se pretende activar las prácticas lingüísticas e incrementar el uso del euskera dándole prioridad en las interacciones cotidianas mediante una práctica conjunta social masiva que tiene una duración de 11 días.





## EKAINA

### Herriko festak

Korputz Egunaren inguruan antolatzen dira herriko festak. Data aldakorra da, baina beti maiatzean edo ekainean izaten da. Egitarau zabala antolatzen dugu: musika-emanaldiak, jolas-parkeak haurrentzako, antzerkiak, pilotu partiduak, bestelako kirol emanaldiak, buruhandi eta erraldoiak, etab.

### Udako solstizioa

San Joan bezperan udako solstizioa ospatzen dugu suaren inguruan: herri-afaria, kantuak, dantzak eta erromeria, udari ongietorria emateko.

## UZTAILA

### Udaleku irekiak

Ekaina bukaeratik hasita eta hilabetez, udaleku irekiak antolatzen ditugu HH1 eta LH6 bitarteko haurrentzat. Primeran pasatzen dute haurrek begiraleekin egun hauetan: jolasak, tailerrak, irteerak, etab.

## JUNIO

### Fiestas locales

Las fiestas locales se organizan alrededor del Día del Corpus Christi. El día puede variar, pero siempre se celebra en mayo o en junio. Organizamos un amplio programa: conciertos de música, parques lúdicos infantiles, teatro, partidos de pelota, otros espectáculos deportivos, gigantes y cabezudos, etc.

### Solsticio de verano

La víspera de San Juan celebramos el solsticio de verano, con una fiesta alrededor del fuego. Se organiza una cena popular, con canto, danzas y romería, todo ello para dar la bienvenida al verano.

## JULIO

### Colonias abiertas

Desde finales de junio, durante un mes, organizamos colonias abiertas para niños y niñas con edades comprendidas entre el primer curso de Educación Infantil y el sexto curso de Educación Primaria. Durante esos días, los niños y las niñas participantes disfrutan de juegos, talleres, salidas y otras tantas actividades organizadas por las personas responsables.

## URRIA

### Euskal Jaia

Urriko bigarren igandean Euskal Jaia ospatzen dugu Anoetan, Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzeko, eta baita baserritarren lana aitortzeko ere. Goizean azoka antolatzen da, eguerdian herri-bazkaria eta arratsaldean erromeria.

### Gau Beltza

Hildakoen gaua ospatzen dugu urriaren 31n, arratsaldean. Kalabazak husteko tainerak, mozorro beldurgarriak, ipuin kontaketak eta heriotzari buruzko gaiak lantzen ditugu egun horren harira.



## AZAROA

### Xexili Eguna

Azaroaren 22an musikarien zaindariaren eguna ospatzen dugu, eta Loatzo Musika Eskolak kontzertuak eta kalejirak eskaintzen ditu herrian, musika lau haizetara zabaltzeko.

### Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna

Azaroaren 25ean elkarretaratzea antolatu ohi dugu herriko plazan, indarkeria matxista salatzeko eta emakumeekiko errespetua aldarrikatzeko, herriko talde feministak eta Udalak deitura. Egun horren inguruan, emakumeak protagonista diren bestelako kultur ekimenak ere antolatzen ditugu.

## OCTUBRE

### Euskal jaia

El segundo domingo de octubre, en Anoeta celebramos la Euskal Jaia. Reivindicamos que Euskal Herria es una nación y reconocemos el trabajo de los y las baserritarras. Por la mañana, se organiza la feria, al mediodía la comida popular y por la tarde la romería.

### Gau Beltza

El 31 de octubre, por la tarde, celebramos el Día de las Personas Difuntas. En torno a ese día, organizamos talleres para vaciar calabazas, elaborar disfraces aterradores, junto con sesiones para narrar historias o tratar temas relacionados con la muerte.

## NOVIEMBRE

### Día de Santa Cecilia

El 22 de noviembre, se celebra el Día de la Patrona de las Personas que se dedican a la Música. La Escuela de Música de Loatzo ofrece conciertos y pasacalles, para difundir la música a los cuatro vientos.

### Día en contra de la violencia machista

El 25 de noviembre, organizamos una concentración en la plaza del pueblo para denunciar la violencia machista y reivindicar el respeto a las mujeres. La concentración la convocan los grupos feministas locales y el ayuntamiento. En torno a ese día, se organizan también otras iniciativas culturales en las que las mujeres son protagonistas.



## ABENDUA

**Euskararen Eguna**  
Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen da, eta hizkuntzaren garrantziaz sentsibilizatzeko jarduerak antolatzen ditugu horren harira: antzerkiak, musika emanaldiak, dokumentalak, etab.

**Neguko solstizioa**  
Abenduaren 24an, neguko solstizioa ospatzeko, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzen dugu, gure mitologian oinarrtitutako usadioei jarraituz. Festa polita egiten da plazan: musika, dantza eta gozokien banaketa haurren artean.

Gainera, batzuetan kultur jarduerak antolatzen ditugu egun berezi hauen inguruan:

**Martxoak 21**  
Arrazakeriaren Aurkako Eguna eta Basoen Nazioarteko Eguna

**Maiatzak 17**  
(LGTBIQ+fobiaren Nazioarteko Eguna)

**Maiatzak 21**  
Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna

**Ekainak 28**  
LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

**Abenduak 18**  
Migratzaileen Nazioarteko Eguna

## DICIEMBRE

**Día del euskera**  
El Día del Euskera se celebra el 3 de diciembre, con actividades de sensibilización sobre la importancia de la lengua: teatro, conciertos de música, documentales, etc.

**Solsticio de invierno**  
El 24 de diciembre, se celebra el solsticio de invierno y nos preparamos para la llegada de Olentzero y Mari Domingi, siguiendo con las tradiciones basadas en nuestra mitología. En la plaza se organiza una bonita fiesta en la que no falta la música, la danza y el reparto de golosinas entre el público más joven.

Además, algunas veces también se organizan actividades culturales en torno a estos días especiales:

**21 de marzo**  
Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial y Día Internacional de los Bosques.

**17 de mayo**  
Día Internacional contra la LGTBIQ+fobia.

**21 de mayo**  
Día Mundial de la Diversidad Cultural.

**28 de junio**  
Día Internacional del Orgullo LGTBIQ+.

**18 de diciembre**  
Día Internacional de las Personas Migrantes.



# Erakunde eta gizarte eragileak / Instituciones y agentes sociales

**Anoetako herri ikastola**  
anoeta@ikastola.eus

**Loatzo Musika Eskola**  
loatzo@loatzo.eus

**Anitz Dantza Taldea**  
anitz.anoeta@gmail.com

**Abesbatza Kukua Elkartea**

**Anoetako Gazte Asanblada**  
anoetakogazteasanblada@gmail.com

**Iratxulo Euskara Taldea**  
iratxuloeuskarataldea@gmail.com

**Euskal Jai Batzordea**  
anoetakoeuskaljaia@gmail.com

**Anoetako talogileak**  
bknkortatu@gmail.com

**Kuku Pilota Elkartea**  
kukupilota@gmail.com

**Anoekate Kirol Taldea**  
anoetakokiroltaldea@gmail.com

**Anoetako Futbol Taldea**  
anoeta.f.t@gmail.com

**Ateaga Elkartea**

**Kuku Elkartea**  
anoetakokukuelkartea@gmail.com

**Matraka Emakume Talde Feminista**

**Euskal Herria Sozialista**

**Oinherri Herri Hezitzalea**  
anoetakoherrihezitzalea@gmail.com

**Etxebizitza sindikatua**  
esindikatua.tolosaldea@gmail.com

**Sortu**

**Sare**

**Gazte Koordinadora Sozialista**

**Gure Esku Dago**  
gureeskudagoanoeta@gmail.com

**Odol-Emaileen Elkartea**

**Irakin**  
irakin@irakin.com

**EH BILDU**  
anoetakoehbildu@gmail.com

**EAJ-PNV**  
anoetaejpnv@gipuzko.eus

Web komunitario bat egin da, herriko eragile bakoitzak bere informazioa plazaratzeko / En este sitio web comunitario, los agentes locales publican información: <https://anoetabizia.eus/>

# Telefono interesgarriak / Telefonos interesantes

**Haur eta Nerabeen arretarako zerbitzua/  
Servicio de Atención a Menores y  
Adolescentes**

116111

**Lanbide enplegu bulegoa /  
Oficina de empleo de Lanbide**

943 023 842  
 Larramendi Kalea 3, Tolosa

**Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Saila/  
Departamento de Empleo de Tolosa  
Garatzen**

943 654 501 (1. luzapena)  
 Garatzen Lehiberri Zentroa, Apattaerreka  
Industrigunea 1

**Tolosaldea Migrazio eta aniztasun zerbitzua/  
Servicio de Migración y Diversidad de  
Tolosaldea**

943 654 501 (6. luzapena)  
 Garatzen Lehiberri Zentroa, Apattaerreka  
Industrigunea 1

**SOS Arrazakeria/SOS Racismo**

671 116 414  
 Emeterio Arrese 2, Tolosa

**HHI-EPA pertsona helduek doan ikasteko  
zentroa/Centro de Educación de Personas  
Adultas, gratuito**

**Tolosa**

943 672 660  
 Igarabide Kalea, 23

**Indarkeria Sexista  
salatzeko/  
Denuncia de  
violencia machista**

900 840 111  
(Satevi)  
 900 840 188  
(Haraberri)  
 016

**Andragora**

747 496 469  
 Emakumeon Plaza  
1, Tolosa

**Caritas**

619 685 063

**Gurutze Gorria /  
Cruz Roja**  
 943 511 605

**Villabona**

943 690 312  
 Errebote Enparantza.  
Udaletxea.

**Gipuzkoako  
larrialdiak/  
Emergencias de  
Gipuzcoa**

943 224 411  
(Larrialdi egoitza eta laguntza  
psikologiko nahiz psicosociala/  
Sede de emergencias, ayuda  
psicológica y ayuda psicosocial

**Mugi**

943 000117

**Larrialdiak /  
Emergencias**


112

**Etxebide**

943 022 810  
 Andia Kalea, 13

# Hiztegia / Vocabulario

Euskera	Gaztelania	Arabiera	Ukraniera	Portugesa	Frantsesa
<b>Agurrak</b>	<b>Saludos</b>	التحية مرحبا	<b>привітання</b> Привіт	<b>Saudações</b> Olá!	<b>Salutations</b> Salut !
Kaixo!	¡Hola!	أهلا وسهلا	Ласкаво просимо	Bem vindo!	Bienvenue !
Ongi etorri!	¡Bienvenid@!	صباح الخير	Доброго ранку	Bom dia!	Bonjour !
Egun on!	¡Buenos días!	مساء الخير	Добрий день	Boa tarde!	Bonjour !
Arratsalde on!	¡Buenas tardes!	لي لة سعيدة	Добрий вечір	Boa noite!	Bonsoir !
Gabon!	¡Buenas noches!	تصبح على خير	Гарних снів	Durma bem	Dormez bien !
Ondo lo egin	¡Que duermas bien!	وداعا	Прощавай	Adeus!	Au revoir !
Agur!	¡Adiós!	إلى اللقاء	До зустрічі	Até logo!	À tout à l'heure !
Gero arte!	¡Hasta luego!	شكرا	Дякую	Obrigado!	Merci !
Eskerrik asko!	¡Gracias!	عنوا	Будь ласка	Não por isso!	De rien !
Ez horregatik!	¡De nada!				
<b>Zenbakia</b>	<b>Números</b>	الأرقام	<b>номери</b>	<b>Números</b>	<b>Chiffres</b>
Bat	Uno	واحد	Один	Um	Un
Bi	Dos	اثنين	Два	Dois	Deux
Hiru	Tres	ثلاثة	Три	Três	Trois
Lau	Cuatro	٤	Чотири	Quatro	Quatre
Bost	Cinco	خمسة	П'ять	Cinco	Cinq
Sei	Seis	ستة	Шість	Seis	Six
Zazpi	Siete	سبعة	Сім	Sete	Sept
Zortzi	Ocho	ثمانية	Вісім	Oito	Huit
Bederatzi	Nueve	تسعة	Дев'ять	Nove	Neuf
Hamar	Diez	عشر	Десять	Dez	Dix
<b>Elkarrizketak</b>	<b>Conversaciones</b>	المحادثة	<b>розмови</b>	<b>Entrevistas</b>	<b>Conversations</b>
Zer moduz zaude?	¿Qué tal estás?	كيف حالك؟	Як ти?	Como você está?	Comment allez-vous ?
Ondo	Bien	انا بخير	Добре	Bem!	Bien
Gaizki	Mal	سيء	Погано	Mal!	Mal
Erdipurdia	Regular	متوسط	Так собі	Mais o menos!	Moyen
Nola izena duzu?	¿Cómo te llamas?	ما إسمك ..؟	Як тебе звати?	Qual é o seu nome? Meu nome é...	Comment vous appelez-vous ? Je m'appelle....
Nire izena ... da	Me llamo....	انا اسمي	Мене звати...		
Nongoa zara?	¿De dónde eres?	من أين أنت؟	Звідки ти?		
Ni ...koia naiz	Soy de...	انا من	Я з...	De onde você é?	D'où venez-vous ?
Eta zu?	¿Y tú?	و أنت؟	А ти?	Sou de... E você?	Je viens de...
Non bizi zara?	¿Dónde vives?	أين ذ سكن؟	Де ти живеш?	Onde você mora?	Et vous ?
Ni Anoetan bizi naiz	Vivo en Anoeta.	انا أسكن في انويطا	Я живу в Аноети	Eu moro em Anoeta	Où habitez-vous ? J'habite à Anoeta
Zer gustatzen zaizu egitea?	¿Qué te gusta hacer?	الأنشطة التي تحب؟	Що тобі подобається робити?	O que você gosta de fazer?	Qu'est-ce que vous aimez ?
Niri ... egitea gustatzen zait	Me gusta...	ما هي انا احب الانشطة التالية	Мені подобається...	Eu gosto de...	J'aime...



ANOETAKO UDALA

# Harrera-gida

## Guía de bienvenida



Laguntzailea

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro